

25 URTEKO LAN IXILARI TXALO

Jon Etxabe

Aita Kaputxinoen eleizan, gizon koadrila bat korutik organoa jeixten ari zen, aldarera eramateko. Gizon haien artean, Andra Mari koruko zenbait tenore eta bajo, eta soprano- kontroltoen senarren bat edo beste. Hori da gogoan dudan MUSIKASTEREN lehen oroitzapena. Ni artean mutilkoskor bat nitzen, nola edo hala Andra Mari Koruaren inguruan zebilena. Haurren koruan abesten nuen, Erreterriako beste hainbat lagunekin batera.

Oroitzapen hori ekarri nahi izan dut aurtengo OARSOko orrialde hauetara, MUSIKASTEREN 25. urteurrena ospatzen dugula eta. MUSIKASTE, Erreterrian ospatzen den musika asteak, merito asko dituela esan beharrik ez dago; ezagutzera eman dituen musikariak, ahaztuta eta zokoratuta zeuden konpositoreak berreskuratzeko egindako lana, musika garaikidea egiten dutenei eskeintzen dien aukera, intreprete berriek

estrenekoz emanaldiak eskaintzeko duten aukera, urte osoan egiten den ikerketa lana eta abar luze bat.

Badira bazterretan adituak, aipatu gaia horiez euren iritzia eman eta emango dutenak, gaur eta aurrerantzean.

Baina MUSIKASTE badu beste alderdi bat, hain ezaguna ez dena, arestian kontatu dudan oroimenarekin zer ikusia duena, eta lerro hauen izenburuan laburtzen dena. Hainbat eta hainbat jendek ixilean, inoren txalorik jaso gabe, bolondres egin duen lanarena. Jakina MUSIKASTE bezalako musika aste batek ezinbestekoa du, ikertzailen, musikari eta interpreteen lana, ez litzateke bestela MUSIKASTERIK izango. Baina, era berean azken 25 urtetan, ixilean egin den eta ondoren aipatuko dudan lan eskergarik gabe behar bada MUSIKASTE egingo zen, baina guk ezagutu dugun MUSIKASTE ez.



Argazkia: Archivo Musical Euzko

Eta zertaz ari naiz ixilean egin den lan hori aipatzen dudanean. Lehenengo batzorde antolatzaileaz. Musikan adituak pare bat. Beste danak lanerako grina sobra duten eta ordurik gabe lanean jarduten duten gizon emakumeak. Aste bete irauten duen jaialdiak, urte osoko lana du berekin, ezin da maiatzena uztarik jaso, udazken eta neguan ereiten den azirik ez balego.

Gogora ekarri nahi ditut baita ere, Andra Mariko kideak. Ez abeslari bezala "langile" bezala baizik. Aldarera pianoa igo eta kontzertua amaitzean jeitsi; zorioneko zurezko bankuak igo koruak abestu dezaten eta gero jeitsi; orkestrak eseritzeko erabiliko dituen sillak jarri eta gero jeitsi; amaierako kontzerturako beharrezko diren alfonbrak igo, jarri eta aspiradoraz txukundu; aldea kendu eta noski gero jarri; herrian barrera MUSIKASTE iragartzeko egiten diren kartelak banatu; amaierako kontzertuan txaloak itzaltzen direnean, silla bana eskuan hartu era bere lekura eraman, oraindik abesteko erabiltzen ditugun jantzi dotoreak soinean ditugula; lanerako jantzi "apainduta" entzulegoa eleiza atarian tertulian ari den bitartean hurrengo egunerako eleiza behar bezala uzteko lanari gogotik ekin; eta noski, MUSIKASTERi amaiera ofiziala eman. Amaiera ofiziala alkateak esaten dituen hitzetan dagoela ez dut nik ukatuko, baina MUSIKASTE amaitu, benetan, azken egun horretako goizaldean amaitzen da, jaso beharreko guztiak bere lekuan utzi ondoren, langile guztiak Gaztediko "komedorera" biltzen direnean, indarberritzera.

Aipatu lan guzti horietan, Andra Mariko abeslari egotzi diet "langile" titulua. Baina badira beste LANGILE batzuk (hauek letra handietan) eta beti ixilean, jarduten dutenak. Hain zuzen Andra Mariko abeslarien, emazte, senar, eta seme- alabak. Ensaioak joan ensaioak etorri urte osoa pazientziaz eramaten dutenak. Abeslaria abesten duena da, baina abeslari- konsor-

teak, etxean geratzen denak, lehenengoak haina meritu badu, besteak haina pasa behar duelako , baina txalorik jaso gabe eta gehienetan ixilik . Baina ez hori bakarrik. Aurreko lerroetan aipatu diren lan guztiak, eta aipatzeke gertu direnak egiteko laguntza eskatzen zaienean beti lanerako pronto daudenak. ANDRA MARI B esaten diogu guk, eta merezimendu osoz jaso zuten aurtengo MUSIKASTEEn plaka bat euren lanaren ordainetan. B letra horrek , inork bestelakoa uste ba zuen ere, ez du bigarren mailakoa dela esan nahi, bikaina dela baizik. Eta benetan horrela dira. Hor dago besteak beste MUSIKASTERen egun handiengan egiten duten lana. MUSIKASTE abesbatza batek antolatzen du eta horregatik dugu denok hain gustoko Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako beste abesbatzekin koruen eguna ospatzea. Baina egun hori ez litzateke berdina izango, abestu ondoren behean egiten dugun lagunarterik ez balego. Eta badakigu, gurean jatekorik ez duen lagunartea ez dela lagunartea. Horretan jarduten dute buru- belarri deskantsurik hartu gabe, ANDRA MARI Bko , sukaldari bikainak.

Asko dira aipatzeke geratu zaizkidanak. Lerro hauek asmoa ez zen historia bat egitea, ordea, nik gogoan ditudanak papepera ekartzea baizik. Gauza gehiago aipatu nitzakeen, ez da dudarik, baina eman zaidan espazioa mugatua da eta amaitzeaz dago. Lerro umil eta apal hauek omenaldi bat izan nahi zuten, bihotzez egindako omenaldia izan ere , azken 25 urte hauetan MUSIKASTE ren aitzakiarekin, ixilean lan egin duten hainbat eta hainbat errenteriarri. Herrigintzan lehialtasun horrekin, eta zalapartarik gabe aritzeak gutxienez gogora ekartzea merezi zuen, 25. urteurren honetan. Ekin eta jarrai.

Bejondeizuela! 🍷